



Izenburua	<i>Duzun onena: hizkuntzen trataera familian.</i>
Egilea	Rosa Ramos eta Patri Arburua; NUETSeko familia lan taldea.
Data	2009/03/17

aurkibidea

aurkibidea.....	2
1. Sarrera: familia tipoen optimizazioa.....	3
2. Orain artekoen errepasoa.....	3
1. Hasiera: Duzuna eman.....	3
2. Mezuak aldatzeko garaia: Euskara, bai goxoa.....	3
3. Mezuan sakontzeko beharra: Duzun onena.....	4
3. Egungo lanaren ardatz nagusiak.....	5
1. Duzun onena materiala.....	5
2. Gurasoentzako motibazio saioak.....	6
4. Ondorioak. Aitzinera begira zer?.....	7

1. Sarrera: familia tipoen optimizazioa

J. M^a Sánchez Carrión Txepetxek sortutako “hiztun tipoen optimizazioa” kontzeptua hartu dugu maileguan azken garai honetan Nafarroako euskara zerbitzuetan familia arloan dauzkagun kezka eta lanak adierazteko. Izan ere, hasieran izan genuen azaleko ikuspegia urtez urte joan zaigu zailtzen eta aberasten: askotarikoak dira familiak, eta askotarikoak izan behar dira euskararen erabilera familian indartzeko proposamenak.

Bide horretan, noski, ez gara bakarrak izan, ezta lehenak edo originalenak ere. Izan ere, han eta hemen aditutakoetan dago emanen ditugun ideien oinarria. Beraz, hemen azalduko duguna bertze batzuek egindako ekarpenak gure praktikara eta hausnarketara ekartzearen fruitua da.

2. Orain artekoen errepassoa

1. Hasiera: *Duzuna eman*

Nafarroako hainbat udalek parte hartu zuten 90. hamarkadaren hasieran Euskal Herrian plazaratu ziren kanpainetan (*Duzuna eman. Eman euskara*). Urtetan transmisioan izandako etena berreskuratu nahian¹, kanpainak helburu zehatza bete nahi zuen: guraso euskaldunak animatu nahi zituen seme-alabei euskaraz egin ziezaieten.

Nafarroako errealtate soziolinguistikoa ezaguturik, kanpaina harek hedapen mugatua zuen. Izan ere, garai hartan ezinezkoa iruditzen zitzaigun ez zegoen zerbait transmititzen ahal zenik. Hortaz, mezuak guraso euskaldunei zuzenduak ziren. Euskara menperatzen ez zuten gainerako familiei ikasteko gomendioa ematen genien. Ikasi, gero seme-alabekin aritzeko; ez ginen gai izan bertzelakorik errateko.

2. Mezuak aldatzeko garaia: *Euskara, bai goxoa*

Hainbat urtetako lanaren ondoren, NUETS² gaia berrikusi beharra agertu zen, eta ordura arteko transmisio kanpainari ikuspegi berria eman nahi izan genion. Bi oinarri hauen inguruan sortu genuen 96-98. urteetan *Euskara, bai goxoa* egitasmoa:

- Ordura arte transmisioaren inguruan genuen kontzeptua gainditu eta zabaldu nahi genuen, eta gurasoei helarazi seme-alabei hizkuntza ez ezik, hizkuntzarako interesa eta maitasuna ere ematen ahal zaizkiela, eta hori euskaraz ez dakiten gurasoen esku ere badagoela. Bertzalde, erran nahi genien hainbat arlotan bazutela zer egin seme-alabek euskara gehiago erabiltzeko.
- Euskara zerbitzuen eta familien artean harreman bat sortu nahi genuen, haurra jaiotzen eta eskolatzen zen bitartean iraunen zuena. Azken finean, harremanean jarri nahi genituen transmisioarekin zerikusia zuten egitasmoak eta D ereduaren aldeko matrikulazio kanpainak.

Familiengana hurbiltzeko, material grafikoa erabiltzeaz gain, bertzelako “oparitxoak” bidaltzen hasi ginen (lerde zapiak, autorako eranskailuak...); eta, batez ere, guraso eta seme-alaben arteko

¹ Nafarroan hainbat eta hainbat eskualdetan euskararen galera ekarri zuen familia bidezko transmisioaren etenari data zehatza jartzea badago, Ultzaman edo Aezkoan, erraterako. Errealtate mingarri hori hagitz presente zegoen transmisioaren aldeko hasierako lan haietan.

² Nafarroako Udaletako Euskara Zerbitzuen Sarea.

euskarazko harremana sustatzeko materialak eskura jartzen (euskarazko kanta eta jolasen CDak, haur hizkera biltzen zuen hiztegitxoak...) eta material horietan oinarritutako ikastaroak antolatzen hasi ginen³.

Egitasmoak lan ildo berriak ekarri zizkigun:

Urte osoan garatzeko egitasmo bat zen, eta ez urteko une zehatz batean egin beharreko kanpaina.

Ume jaioberriak zituzten tipologia guztietako familiekin harremanean jartzeko bidea ematen zigun, *Euskara, bai goxoa* materiala familia horietara guztietara igortzen genuelakoz.

Egitasmoa, herri eta eskualde euskaldunetan ez ezik, gainerakoetan ere bideragarria zen, mezuak edozein hizkuntza tipologiatako gurasoentzat balio zuelakoz.

Familiekiko harremana gutxienez umea eskolatu bitartean eduki nahiak egitasmoa zabaltzera eramán gintuen. 0-3 urteko haurrak zituzten familien berezitasunetan sakontzeko bidea zabaldu zen.

3. Mezuan sakontzeko beharra: *Duzun onena*

Azken urteetan egindakoa baloratu ondoren, 2007. urtean aldaketa sakonaren beharra ikusi genuen NUETSeko transmisioaren lan taldean⁴, eta gogoeta eta ideia berriak lantzen hasi ginen:

- *Euskara, bai goxoak* helarazten zuen oinarritzko mezuari eutsi nahi genion; are gehiago, horretan gehiago sakondu beharra ikusi genuen: euskara transmititzea euskaraz dakiten gurasoek seme-alabei hizkuntza horretan solastea baino higitzez gehiago da; hizkuntzarekiko maitasuna, interesa, aldeko jarrera... ere transmititzen ahal dira eta, are gehiago, hori izan daiteke gure seme-alabak euskaraz hitzun onak izateko eta hizkuntzarekiko atxikimendua izateko giltzarrietako bat. Gainera, hori, euskaraz dakiten gurasoek ez ezik, gainerako hizkuntza tipologia guztietako gurasoek ere egin dezakete.
- Urtetan familiei zuzendutako mezuetan erabilitako *bikote euskaldun/bikote misto/bikote erdaldun* sailkapena gaintu behar genuen. Errealitate soziologiko eta soziolinguistikoak abanikoa higitzez zabalagoa zela erakusten zigun. Batetik, osaeatik hasita, familia tradizionalaz gainera, bertzelako familiak gero eta ugariagoak ziren; egoera horiek bereziki zaindu nahi genituen gure mezua ematerakoan (batez ere hizkeran eta irudietan). Bertzetik, immigrazioaren eta kulturantzatasunaren ondorioz, urte gutxitan familien hizkuntza tipologia anitz zabaltzen ari zen, eta euskara eta gaztelaniaz gain, bertze hizkuntzadun familiak ugaritzen ari ziren. Tipologia guztiak geneuzkan aitzinean, euskara hutsean aritzen ziren familietatik hasi eta gure hizkuntza badenik ere ez zekitenetaraino.
- Kultur eta hizkuntza aniztasuna hasieratik ikusi genituen abantaila modura, elebitasunetik eleaniztasunera jauzi egiteko aukera ematen zigutelakoz, eta, bide batez, gure mezuetan ordura arte nagusitu izan zen euskara vs. gaztelania dikotomia gaintzen laguntzen zigutelakoz. Halere, jakitun ginen eleaniztasunari buruzko azaleko diskurtsoak sortzen dituen arriskuez, hizkuntza guztiak maila berean jartzeko joera baitu⁵. Horren aitzinean, familiei bertzelako hitzun mota bat proposatu nahi genien: euskara ardatz eta erreferentzia hizkuntza izanen zuten neska-mutiko eleaniztunak.

³ *Euskaraz Mintza Jolas Tailerrak* eta *Kontu Txikiak* argitalpenak, Sortzen-Ikasbatuazek sortuak edo *Xamarikoren ipuin zorroa*, Dindaia Fundazioak sortua.

⁴ Lan taldearen izena ere aldatu genuen; geroztik familia lan taldea deitzen diogu.

⁵ Are gehiago, Nafarroan, gobernua eta bertze zenbait erakundek, euskara gutxietsi eta bertze hizkuntzak lehenesten dituen eleaniztasunaren diskurtsoa egin dute.

- Oinarri teoriko handirik gabe bada ere, eta euskara zerbitzuen esperientzia hutsean oinarrituta⁶, gurasoen artean kezka eta zalantza sumatzen genituen etxean hizkuntzei eman beharreko tratamenduaren inguruan. Familien hizkuntza tipologia ezberdinak kontuan hartuta, kezken eta zalantzen zerrendatxo osatu genuen.
- Ordura arte emandako mezu guztiak ikuspegi soziolinguistiko hutsetik pentsatuak ziren, eta interesgarria iruditu zitzaigun pedagogian adituak zirenen ikuspegia ezagutzea⁷. Izan ere, susmoa genuen gurasoei mezu kontrajarriak helarazten genizkiela ikastetxeetatik eta euskara zerbitzuetatik. Alde pedagogikoa eta soziolinguistikoa uztartzeko beharra ikusten genuen, bide horrek gure ordura arteko egia absolutuak kolokan jartzen bazituen ere.
- Hortaz, familiei hizkuntzen kudeaketaren inguruan zer errana bagenuela argi genuen, baina betiere ikuspegi aholku emaile batetik. Ordura arte gurasoei etxean hizkuntzekin zer egin behar zuten erraten genien —maiz kutsu arau emaile batekin—, baina ez genien azaltzen hori nola egin zezaketen; proposamen eta gomendio zehatzak ematea falta zitzaigun.
- Familietan hizkuntzei eman beharreko tratamenduaren inguruko aholkuak beharrezko dira hiririk handienetan nahiz txikienetan, eremurik erdaldunenetan nahiz euskaldunenetan. Urte batzuk lehenago pentsaezina zirudien arren, euskarri eta mezu berberak Arantzan nahiz Lizarran gaia lantzeko balio lezakete, abiapuntua ez baitzen inguru soziolinguistikoa, familiaren hizkuntza tipologia baizik.

Hori guztia kontuan hartuta ekin genion asmo berriari. Hasieratik ikusi genuen eman nahi genuen mezua ez zitekeela argitalpen batera mugatu, eta bertze bide batetik ere jo behar genuela. Hortaz, ume jaioberrien familiei banatzeko materiala berritzeaz gain, gurasoentzako motibazio saioak prestatzen hasi ginen.

3. Egungo lanaren ardatz nagusiak

1. Duzun onena materiala

Egindako hausnarketaren emaitza, eta Euskal Herriko bertze zenbait eskualdetan egindakoa kontuan hartuta, 2008az geroztik *Duzun onena* materiala⁸ banatzen diegu familiei⁹. Honako atal hauek dauzka¹⁰:

- Hizkuntzen garrantzia umearen garapenean.
- Hizkuntzen garrantzia gizartean.
- Noiz eta nola erabili euskara familian.

⁶ Batez ere gurasoentzat antolatu izan ditugun hitzaldietan, ikastaroetan eta antzeko jardueretan bildutakoak kontuan hartuta.

⁷ Bereziki izan zen aberasgarria Iruñeko Hegoalde Ikastolako zuzendari Aitor Etxarterekin egindako gogoeta.

⁸ Oinarritzkoena izenburu hori bera daraman liburuxka da; horrekin batera Kukuxumusu eta Ttartalo argitaletxeen *Uretan plisti-plasta* liburua banatzen diegu, eta autorako eranskailua.

⁹ *Duzun Onena* materiala Nafarroako toki entitate hauek banatzen dute: Agoitz-Aezkoako Euskara Zerbitzuak; Antsoaingo Udalak; Arangurengo Udalak; Atarrabiako Udalak; Auritz, Erroibar eta Luzaideko Udalek; Barañaingo Udalak; Baztango Udalak; Berriobeitiko Udalak; Berriozarko Udalak; Bortzirietako Euskara Mankomunitateak; Garesko Udalak; Malerrekako Mankomunitateak; Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak; Orkoien, Oltza Zendea, Etxauri eta Bidaurretko Udalek; Sakanako Mankomunitateak; Tafallako Udalak; Uharte eta Esteribarko Zerbitzu Mankomunitateak; Zaraitzu eta Erronkariko Batzar Nagusiek.

¹⁰ Liburuxka osorik ikus daiteke www.erabili.com webgunean. Disenua eta maketazioa Kulturkari SLUK egina da, Ttipi-tpapa Fundazioaren barrenean dagoen diseinu grafikoko enpresak.

- Hiztegia, hizkuntza gomendioak eta jolasak.
- Gaiaren inguruko material gomendarria.

2. Gurasoentzako motibazio saioak

Arestian erran bezala, egitasmo honekin hasi ginelarik argi genuen ohiko bidez gainera (materiala banatzeaz gainera), mezua helarazteko bertzelako bideak jorratu behar genituela. Buruntzaldeko hainbat ikastetxetan gurasoekin egindako bileren berri bagenuen¹¹, eta bide horretatik jotzea erabaki genuen.

Saioak 3 urteko haurren geletako gurasoekin egitea proposatu genuen, batez ere eskolatu berri diren umeen gurasoak harberago eta irekiago egoten direlako. Gure ahalmenak eta mugak kontuan hartuta, saioak modu esperimentalean planteatu genituen. 2008an guztira zortzi herritako bertze hainbat ikastetxetan antolatu ziren saioak (Bera, Berriozar, Elizondo, Erronkari, Gares, Larraintzar, Lekunberri, eta Tafalla).

Aitzinetik ikastetxeetako zuzendariekin eta 3 urteko geletako tutoreekin solastuta antolatu genituen saioak. Haien konplizitatea eta parte hartzea ezinbertzekoa zen, eta ikastetxeak egin zituen deialdiak, gelako bilerak bailiran. Ahal zela, gela berean egoteagatik familiek sortzen duten talde naturala errespetatu nahi genuen, erabaki eta jokamolde anitz taldean bertan bideratzen direlako. Kasurik gehienetan gela bakoitzeko bi bilera antolatu ziren: bata euskaraz zekiten gurasoentzat, eta bertzea gutxi zekitenentzat edo ez zekitenentzat. Saioak¹² lan taldeko kideek eman genituen, betiere tutoreak bertan izanda.

Edukiari dagokionez, saioetan *Duzun Onena* liburuxka hartu genuen oinarritzat, baina bileraren formatoak gehiago sakontzeko aukera eman zigun.

Gurasoei nagusiki honako mezu hauek helarazten saiatu ginen:

- Eskolak anitz egin dezake, baina ez dena (hizkuntzen arteko desoreka soziala).
- Familiari dagokio beren seme-alabak nolako hiztunak izatea nahi duen erabakitzea, eta horretarako hurrei bitartekoak eskaintzea.
- Abiapuntua beti izan behar da norberak (gurasoek) eskain dezakeen eredurik hoberena; hortik dator egitasmoaren leloa. Familia tipologia bakoitzak abiapuntu ezberdina dauka, baina denek egin dezakete zerbait:
 1. Familia euskaldunak: etxeko erregistroa eta euskalkia landu, eredu egokiak eman eta erabilera ohiturei erreparatu.
 2. Euskaraz zerbait dakiten familiak: familiako hizkuntza ongi transmititu eta euskarari sarbidea eman (une edota guneak "erritualizatu"). Betiere, ziurtatu familiako hizkuntza ongi ikasiko dutela.
 3. Familiako batek daki, bertzeak ez: bi hizkuntzak transmititzearen abantaila handia azpimarratu.
 4. Euskararik ez dakiten familiak: aisialdiaren garrantzia azpimarratu eta anitz egin dezatekela erakutsi (egoera horretan dauden hurrek daukaten beharra azaldu eta hizkera ez formalaren berri eman); familian euskarak izan dezakeen tokiaz proposamen zehatzak egin.
 5. Hizkuntza gehiago daudenean: familiaren hizkuntza ez galtzearen garrantzia eta norberaren hizkuntza eta kulturaren balioa azpimarratu.
- Eskolako lanak testuinguruan jarri: larritasuna arindu, gaiari garrantzia kendu gabe.

¹¹ Garai hartan lan taldeko kide genuen Paula Kasares, Baztango Udaleko euskara teknikaria, eta bera ibili zen Buruntzaldeko ikastetxeetan gurasoekin horrelako saioak egiten.

¹² Ordubeteko saioak izan ziren, eta deialdian hori zehaztea eskatu genien irakasleei.

- Tipologia guztietako familiei, seme-alaben euskalduntze prozesuan lagungarria den jarreraz: hizkuntza jolasteko eta gozatzeko aukeratzat hartu, seme-alabek ikasten dutenaz interesa adierazi eta aurrerapenak baloratu eta, azkenik, seme-alabekin batera ikasteko aukeraz baliatu. Gurasoei euskara ikasteko gonbita egin, norberaren garapenerako aukera gisa.

Gurasoengandik hainbat kezka eta zalantza bildu genituen. Batzuk orokorrak ziren eta espero genituen; bertze batzuk, aldiz, egoera soziolinguistikoak sortuak ziren eta aurreikusi gabe genituen. Hemen adierazgarrienak baizik ez ditugu azalduko:

- Nola lagundu eskolako lanetan: kezka nagusia, tipologia guztietako familietan.
- Gurasoen gaitasun mugatua (dakitena gaizki erratearen beldurra).
- Nola jokatu bata euskaraz dakienean eta bertzeak ez.
- Haurrek gaztelania ongi ez ikasteko beldurra.
- Haurrek hizkuntzak (edo kodeak) nahasteko joeraz.
- Euskararen kalitateari buruzko kezka.
- Nola jokatu euskaldunak ez diren senideen aurrean.
- Zer egin familian bertan euskararen aurkako jarrera gogorak eta agerikoak daudenean.
- Nola aldatu guraso euskaldunen artean gaztelaniaz aritzeko ohitura.
- Gurasoen hizkuntza euskara edo gaztelania ez den bat izanik, haurra egoera konplexua bideratzeko gauza ez izatearen beldurra.

4. Ondorioak. Aitzinera begira zer?

Duzun onena egitasmoak oraintsu bete du urtea. Baliabide faltagatik balorazio sakonik ezin izan dugu egin, baina lan taldean egindako balorazioak zerrendatu nahi genituzke, topaketan gogoeta egiteko balio lezaketelakoan:

- Urtetan gurasoei eman izan diegun mezua gogorregia eta itxiegia izan da. Guraso euskaldunei umeei euskaraz egiteko erran diegu, eta ez dakitenei ikasteko, gero umeekin euskaraz aritzeko. Ez dakitenei igorritako mezuak ez garamatza inora; bide antzua da. Egitasmo honen ekarpenik garrantzitsuena izan da lehen aldiz uztartu ditugula alde pedagogikoa eta soziolinguistikoa. Orain arteko mezu gogor hori alde batera utzi, eta gurasoei erran diegu umeei hobeki menperatzen duten hizkuntza (edozein dela ere) transmititzeko, betiere euskarari eman beharreko trataeraren inguruko aholku zehatzak emanda. Gerora begira hizkuntzen pedagogiak eta jabetzeak eskaintzen diguten jakintzaren arloan sakondu beharra ikusten dugu.
- Gurasoei erraten badiegu seme-alabekin hobekien menperatzen duten hizkuntzan aritzea komeni dela, arriskua egon daiteke beren euskara maila —egokia izanagatik— gutxiesten duten gurasoek ez transmititzeko. Beraz, ezinbertzekoa da mezuak ongi modulatzeko eta aitzinean dugun publikoa ongi ezagutzea.
- Motibazio saioek aukera eman digute gure hasierako hipotesia berresteko: hizkuntza tipologia guztietako gurasoen artean ikusi ditugu etxean hizkuntzei eman beharreko trataeraren inguruko kezkak eta zalantzak. Are gehiago, gure ustez gaituzteak egon zitezkeen zalantzak ere agertu dira, hala nola, guraso euskaldun anitzek euskalkiaren erabileraren inguruan dituztenak. Hasi dugun lan ildoari jarraipena eman behar diogu, eta gizartean dauden hainbat uste faltsu eta ikuspegi oker zuzentzeko tresnak eman behar dizkiegu gurasoei¹³. Ildo horretan hagitz garrantzitsua izanen da gurasoek errateko dutena entzuten jakitea.

¹³ Azken garai honetan Nafarroako Gobernuak susatu nahi duen Hizkuntzen Tratamendu Integratua (TIL) dela eta, gurasoei informazio are nahasiagoa heltzen zaie. Berebiziko garrantzia hartu du hizkuntzen ikaskuntzaren inguruko mezuak argi eta ongi zabaltzeak.

- Deus gutxi dakigu hizkuntza ohiturak aldatzeko prozedurei buruz. Motibazio saioetan ez gara horri buruz hitz egitera ausartu ere. Gehienez ere, umeen aitzinean saiakera batzuk egiteko gomendio zehatzak eman dizkiegu. Soziolinguistika Klusterrak koordinatutako ikerketa lana ezagutu eta bide horretan sakontzeko behar nabarmena dugu.
- Argitalpen eta material txukunak egiteko gaitasuna aspaldi erakutsi genuen, baina gure mezuarekin berandu iristen garela uste dugu. Etxeko hizkuntza zein izanen den lehenagotik erabakia dago (segur aski ez da beti kontzienteki hartutako erabakia izanen). Gure ustez, errateko daukaguna eremu gehiagoetara eraman eta egokitu behar dugu (haur eskolak, ludotekak, guraso eskolak, erditzea prestatzeko ikastaroak, familia plangintzako zentroak...).
- Saioak hizkuntza eredia aukeratu duten gurasoei eskaini dizkiegu; ez dugu saiorik egin D eredia bertzerik eskaintzen ez duten herrietan. Horietan bertzelako kezkek egon daitezke, eta segur aski mezua eta diskurtsoa aldatu beharko genuke.

Horiek dira une honetan familian euskararen erabilera indartzeko bidean lantzeko ikusten ditugun guneak eta gaiak. Aitzinera begira bertze anitz aurkituko ditugu. Alabaina, udaletako euskara zerbitzuek egun dituzten baliabideekin ezin dute guztia beren gain hartu. Horretarako modua izanda ere, zenbait gaik zerbitzu horien eskumenak eta mugak gainditzen dituzte, eta nahitaez eskatzen dute eragile ezberdinen arteko elkarlana.



Berriozarko Udala-Euskara Zerbitzua
Artekale 24 · 31013 Berriozar (Nafarroa)
T_ (+34) 948 300 359 · F_ (+34) 948 301 656
euskara@berriozar.es · www.berriozar.es

Bortzirietako Euskara Mankomunitatea
Herriko Plaza 7 · 31790 Arantza (Nafarroa)
T_ (+34) 948 634 125 · F_ (+34) 948 634 192
euskara@bortziriak.org · www.bortziriak.org

Udaltop lan-topaketa batzuk izan nahi dute. Helburu hori lortzen laguntzeko, ponentziak eskura jarri dira topaketak egin aurretik, nahikoa denbora izan dezan teknikari bakoitzak irakurtzeko, lantzeko eta hizlariari egingo lizkiokeen galderak prestatzeko. Jardunaldietan bertan, jadanik irakurriak egongo diren hitzaldiei adina tarte eman nahi zaie elkarriketarako eta hausnarketarako tarteei.

Idatzi hemen zure galdera (ez ahaztu web gunetik bideratu behar duzula).

Galdera:

Azalpena: